

Berriak

2020ko albisteen kronika

Atal honetan Euskaltzaindiak sortu dituen edo erakundea ardatz izan duten berri garrantzitsuenak bildu ditugu. Mendeurrenaren ondorengo urtea oparoa izan da ekimenetan eta, hargatik, hautaketa bat egin behar izan dugu. Hautatzea ez da erraza, eta beti da subjektiboa: hori dela eta, guri esanguratsuak iruditu zaizkigun berriak aipatzeaz landa, irizpide nagusia izan da agerkari honetako atalen batean jada argitaratu ez izana –Arauak, Hitzarmenak, Hilberri-txostenak, eta abar- edo argitalpenen batean jaso ez izana –Jardunaldiak, batez ere-.

2020 urte hau berezia izan da munduan eta baita Euskal Herrian ere. COVID-19 gaixotasun eta pandemiak denon bizitzan izan du eragina, eta erakunde guztien funtzionamendua baldintzatu du. Euskaltzaindia ez da salbuespena izan, baina goerara moldatu da eta Akademiak ekinbide luzea garatu du beste behin ere.

Otsailean

Ia 600 ikusle izan ditu aurten Lautan Hiru antzerki jaialdiak

2020ko otsailean, Euskaltzaindiak Lautan Hiru egitasmoaren bigarren aldia antolatu du, Café Bar Bilbao, 7Katu gaztetxea eta Bira kulturgunearekin elkarlanean eta Bilboko Udalaren babesarekin. Era berean, lau eragileen egoitzak izan dira antzezlanen agertokiak.

2019ko arrakasta ikusita, beste ahalegin bat egin du Akademiak aurten, eta hirugarren baterako asmoak ere badira. Aurtengo ekimenean, ia 600 ikusle izan ditu Lautan Hiruk, eta antzerki txikiari tartea egiten dion jaialdia dela kontuan hartuta, ez da kopuru makala.

"Lautan Hiru: antzerki txikia, festibal handia" Bilbon antolatu da, lau osteguez jarraian (6an, 13an, 20an eta 27an, hain zuzen). Bertan parte hartu dute,

besteak beste, Telmo Irureta, Miren Tirapu, Erika Olaizola, Mikel Martinez, Irati Agirreazkuenaga edo Galder Perez antzerkilariek. Jaialdian bestelakoak ere programatu dira, esaterako, Ituiño magoaren emanaldia edo Beatriz Elgezabal ipuin-kontalariarena.

Gogoratu behar da Lautan Hiru ekimenak hiru helburu nagusi dituela: Euskarazko antzerkia hauspotzea, antzerkilariei beren lanak erakusteko espazioak eskaintzea eta, Zazpi Kaleetako giroan eragiteaz gain, Bilbo hiriko kultur aukerak zabaltzea.

"Euskara Ibiltaria" Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxera heldu da

Euskaltzaindiak, Gasteizko Udalak eta Oihaneder Euskararen Etxeak, Laboral Kutxaren babesarekin, "Euskara Ibiltaria" erakusketa interaktiboa aurkeztu dute.

Otsailaren 28tik apirilaren 26ra arte egon da ikusgai, ukigai, entzungai eta gozagai. Euskaltzaindiaren *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a du oinarri, eta euskararen aniztasuna erakustea helburu.

Apirilean

Koronabirusaren oinarrizko lexikoa plazaratu du Euskaltzaindiak

UZEIrekin lankidetzan, besteak beste, osasun-arloko profesionalei eta euskarazko hedabideei laguntzeko paratu da. Hizpide nagusia bihurtu zaigu azken asteotan COVID-19 gaixotasuna, eta pandemia horrek denon bizitzetan dagoeneko izan duen eta izango duen eragina ere ez da nolanahikoa.

Horren harira, hitz ugari ikasi behar izan ditugu gehienok, albisteetatik nahiz osasun-arduradunen esanetatik, eta ohikoenak jasotzeko saioa egin du Euskaltzaindiak UZEIrekin batera prestatu duen lexiko berrian.

Lexikoan oinarrizkat hartu dira Euskaltzaindiaren hiztegi arauemailea (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*) eta Euskalterm terminologia-banku publikoa, beste iturri batzuen artean. Horiekin batera, euskarazko komunikabideetan (orokor nahiz es-

pezializatueta) pandemia honi buruz hitz egiterakoan nagusi den erabilera ere kontuan hartu da. Koronabirusaren oinarritzko lexikoa, halere, gaiarekiko lehen hurbilpen-saioa baino ez da, eta, beraz, ez da prestatu exhaustiboa izateko helburuarekin.

Uztailean

Euskaltzaindiak antzerki-ekoizpena sustatzeko laguntza berria sortu du

Bilboko Udalaren babesarekin sortutako laguntza honen helburu nagusia euskarazko antzerkia hauspotzea da, batez ere pieza laburren sorkuntzari lagunduz. Hautatutako lana 2021eko Lautan Hiru jaialdian estreinatuko da. Proiektuak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 15ean amaitu da.

Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak jardunaldi berri bat antolatu dute uztailearen 21ean: Etorkizuneko euskal gizartea: euskara erabiltzeko eremu berriak.

Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak etorkizuneko euskal gizartea zer nolakoa izango den ezagutzeko mintegia antolatu dute Bilbon, eta jardunaldian etorkizuneko gizarte horretan euskararen erabilera-eremu berriak identifikatu nahi izan dira.

Iñaki Iurrebaso EHUko irakasleak estreinatu du mintegia, eta euskararen egoera soziala aztertu du, azken hamarkadetakako datu demolinguistikoak emanez eta etorkizuneko gako batzuk seinalatuz.

Ondoren, **Gorka Espiau** Agirre Lehendakaria Center-eko zuzendariak galdera latza mahairatu du, hausnarketarako bide ematen duena: “Eraldaketa handiak datoz etorkizunean. Pentsatzen ahal dugu hurrengoko eraldaketa prozesua aurrera ateratzeko euskara ezinbestekoa dela? Duela 40 urte erantzuna baiezkoa izan zen. Eta gaur egun?”.

Ibon Zugasti Prospektikerreko zuzendariak gaur egungo jokaera globalak aztertu ditu bere berbaldian, eta hortik tokian tokiko agertokiak egin du jauzi. Ondoren, egoera berrien aurrean euskararen etorkizuneko agertokiak elkarrekin eraikitze-ko beharra azpimarratu du.

Xabier Barandiaran Deustuko Unibertsitateko irakasleak euskara etorkizuneko herrigintzaren erdigunean kokatu behar dela esan du, baina horretarako aitortu du ezinbestekoa dela bizi dugun eraldaketa sakona ondo ulertzea.

Arantza del Pozo Vicomtech enpresaren Ahots eta Hizkuntza Teknologien Sailko zuzendaria teknologia aurreratuen garrantziaz aritu da, eta ohartarazi du euskarak esparru horretan presentzia urria duela.

Andoni Eizagirre Mondragon Unibertsitateko irakasleak eta **Ion Muñoa** Deustuko Unibertsitateko irakasleak komunikazio eta sozializazio prozesuak bizi duen eraldaketaz jardun dute.

Paskual Rekalde hizkuntzalari nafarra euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak

Itzultzaile nafarrak Andres Iñigoren hutsartea beteko du Euskaltzaindian, eta Paskual Rekalderekin 93 dira bere sorreratik Akademiak izendatu dituen euskaltzain osoak.

Paskual Rekalde (Amaiur, 1963) Euskal Filologian lizentziaduna da EHUUn, eta gaur egun, Nafarroako Gobernuak euskara itzultzailea da eta Eusko Jaurlaritzako Terminologia batzorde bereziko kidea.

Zenbait lan eta artikulu argitaratu ditu euskara batuaren eta euskalkien eta Baztango euskararen inguruan. Horien artean daude Mariano Izeta zenaren *Baztango Hiztegia* eta *Dirua galgarri* lanen edizioa, eta Baztango, Malerrekako eta Bortzirietako agiri zaharretako zenbait toponimo eta oikonimoren inguruko lanak, Andres Iñigorekin batera prestatuak.

Euskaltzain urgazle 2003an izendatua eta Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariorde, 2018an. 2000an hasi zuen ibilbidea Akademian, eta gaur egun zenbait batzorde eta lantaldetako kide da (Corpus, Euskalkiak, Euskaltzaindiaren Hiztegia, EBE, Gramatika eta Onomastika) eta, orobat, HIZBEA zerbitzuaren arduraduna.

Euskaltzaindiak bere Hiztegia eguneratu du eta azken sei hilabeteotan 719 forma berri jaso ditu

Euskaltzaindiak 719 forma berri jaso ditu azken sei hilabeteotan, eta moldaketa zein berrikuntza guztiak hiztegiari erantsi dizkio. Euskaltzaindiak etengabe osatzen eta berrikusten du hiztegia, eta urtean bitan sareratzen ditu berrikuntzak. 2016an, bigarren argitalpena paperean atera zenetik eguneratzen du urtean bitan, eta 2020ko bigarrena da hil honetan sareratu dena.

Esan bezala, azken sei hilabeteotan 719 forma berri jaso dira *Euskaltzaindiaren Hiztegian* (41 sarrera eta 678 azpisarrera), eta 647 osatu edo findu dira. Sartu diren forma berrien artean, tradiziokoak dira asko eta asko, esaterako: *bretoiera; odolgarbi; lehengo lepotik burua; leher eta zapart egin; opilari su egin* edo *mandotik astora erori*. Esaera zaharrak berreskuratu dira, eta 2019an hasitako ildoari jarraituz, euskal ondarea agerian jartzeko saioa egin du Euskaltzaindiak beste behin.

Egun, 39.292 sarrera, 8.786 azpisarrera eta 66.396 adiera ditu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* (2016an 37.894 sarrera, 6.969 azpisarrera eta 61.499 adiera zituen).

Irailean

Euskaltzaindiaren agiritegia: Luis Villasanteren idazlanak

Luis Villasante (1920-2000) euskaltzainburu izan zen euskara batua adostu eta lehen garapen sendoa izan zuen urte zailtan. Hortaz gain, idazle argi, zorrotz, ugari eta eredugarria izan zen. Aurten betetzen da bere jaiotzaren mendeurrena.

Aita Villasantek 57 urtetan zehar argitaratu zituen bere lanak: lehen argitalpena 1944koa da, eta azkena 2000koa. Guztira, argitaratutako 929 idazlan katalogatu eta bildu ditu Euskaltzaindiak.

Villasanteren idazlan guztiak sarean daude, faksmilean eta testu transkribatuetan, aurkibide oso zehatzekin. Lau multzo nagusitan daude banatuta: liburu osoak (41), liburu zatiak (106), artikulua (769) eta edizio bereziak (Villasantek bildu, editatu edota prestatutako liburuak, guztira hamairu).

2019ko Azkue Literatura sariak

Guztira 568 lan aurkeztu dira aurtengo lehiaketan, iaz baino 433 gehiago.

A mailan (10 eta 13 urte bitarteko gazteen saila) Ekain Errazu (narrazioan) eta Unai Oruesagasti (poesian) gailendu dira; B mailan (14 eta 17 urte bitartekoak) Amaiur Puente izan da irabazlea narrazioan eta Idoia Zabalo poesian. Halaber, Oiartzungo Hautzaro ikastola izan da lanik gehien aurkeztu duen ikastetxea (164 lan).

1991tik Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatzen dituzten sari hauen xedea da idazle gazteak literatura mundura erakartzea.

Literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, betiere Euskaltzaindiak izendatutakoak. Hauek izan dira aurtengo epaimahaikoak:

A mailan: Miren Billelabeitia, Igone Etxebarria eta Manu Lopez Gaseni.

B mailan: Yolanda Arrieta, Amaia Jauregizar eta Patxi Zubizarreta.

Urrian

"Euskara Eskuz Esku", Ipar Euskal Herriatik batasunari eginiko ekarpena

Tresna berriaren helburua da euskara batuaren arauak modu sinplifikatuan agertzea, Ipar Euskal Herriko hizkeren berezitasunak azpimarratuz. EEEen Ipar Euskal Herriko hizkeren berezitasunak azpimarratzen dira, eta euskara batuan onartzen diren Iparraldeko formak lehenesten dira adibideetan. Proiektu honen zuzendaria Jean-Baptiste Coyos euskaltzain osoa da, eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) % 65eko dirulaguntza jaso du.

Berrogeita hamar bat urtez Euskaltzaindiak garatu duen euskara batuak bere bidea egin du euskal komunitatean; Ipar Euskal Herrian ere bai. Haren beharra ez dute eztabaidatzen orain euskaraz idazten dutenek, eta gizarte-alor anitzetan sartua da, bai idatzian, bai ahozko moldean. Halere, adituetarik kanpo, Ipar Euskal Herrian guti edo gaizki ezagutua dela nabari da. Sarritan tokiko hizkerekin nahasten da batua, eta beste batzuetan ez da jakiten noiz erabili behar den eta nola. Hortaz, hori dena argitu nahi duenari lagungarri egingo zaio EEE tresna digital berria.

"Euskara Eskuz Esku" (EEE) proiektuak Ipar Euskal Herriko hiztunei hizkuntza aniztasuna kontuan hartzen duen euskara batuaren hedatzeko tresna linguistikoa berria ematea du helburu. Euskarri horrek Euskaltzaindiak ematen dituen gomendioak eta arauak proposatzen ditu artikulu errazen bidez, Ipar Euskal Herriko hizkuntza-aniztasunari dagozkionak azpimarratuz. Hizkuntza idatziari eta ahozkoari lotuak diren eremu guztiak aurkezten ditu: ortografia, morfosintaxia, hiztegiak, fonetika eta fonologia, onomastika. Euskara batua eta Iparraldeko euskalkien egoeraz, dialektologia, literaturaz artikuluak irakur daitezke.

Bestalde, erabiltzaileak zalantzak edo galderak baldin baditu, zuzenki idatz dezake eta Euskaltzaindiaren Jagonet zerbitzuaren bidez berehalako erantzun pertsonala eskuratuko du.

Helburuko erabiltzailea Iparraldeko euskaldun alfabetatua da, euskara batua erabili nahi duena: irakasleak, ikasleak, euskara idatzia erabiltzen dutenak eta, jende horretaz haraindi, diasporan edo Hego Euskal Herrian gai honetaz interesa duen oro.

EEE ondoko iturrietan oinarritzen da: Euskaltzaindiak 1994tik argitaratzen dituen arauak; *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, *Euskara Batuaren Eskuliburua*, eta *Euskal Onomastikaren Datutegia*. Halaber, EEE landu duen lantaldea zazpi lagunek osatzen dute: Jean-Baptiste Coyosek (zuzendaria); Isabelle Duguinek (ikertzailea) eta aholkulari lanetan ibili diren Andres Alberdik (euskaltzain urgazlea), Jean-Louis Davantek (euskaltzain osoa), Txomin Peillenek (euskaltzain osoa), Xarles Videgainek (euskaltzain osoa), eta Allande Socarrosek (euskaltzain urgazlea).

Euskaltzaindiak bi hitzaldi antolatu ditu Ondarearen Europako Jardunaldietan

Urriaren 20an, Emil Larre euskaltzain osoaren *Lekukotasun, kantu eta idazki* liburu berriari buruz jardun dute Peio Jorajuriak eta Jabier Kaltzakortak. Liburu honetan Emil Larrek *Herria* astekarian idatzitako ehun editorial hautatu dira, 1980 eta 1990 bitartekoak. Halaber, mezatarako idatzi zituen hainbat kantu bildu dira. Emil Larre (1926-2015) Baigorriin jaio zen eta, labur esanda, apaiz, euskaltzale eta bertsozale sutsua izan zen. 1951n apezte zuen eta Ipar Euskal Herriko hainbat herritan erretore jardun zuen. 1969tik 2003ra *Herria* astekariko zuzendaria izan zen. 1969an euskaltzain urgazle izendatu zuten eta 1975ean euskaltzain oso.

Urriaren 27an, berriz, Andres Urrutiak Luis Villasante euskaltzain osoaren bizitza eta lanak gogora ekartzea zen asmoa. Izan ere, aurtun betetzen da haren jaiotzaren mendeurrena, eta Euskaltzaindiak berak argitaratutako idazlan guztiak bildu eta sarean jarri ditu. Tamalez, koronabirusa dela-eta hitzaldia bertan behera geratu da.

Euskaltzaindiak JAGONET kontsulta-zerbitzua indarberritu du

Zerbitzuak bi helburu nagusi ditu: bata, euskararen erabilera zuzena eta egokia bermatzea, eta, bestea, erabilera horren gaineko zalantzak argitzea.

Datu-basean JAGONET sortu zenetik 2016ko martxora bitartean eginiko erabiltzaileen galderarik adierazgarrienak daude jasoak; molde eguneratuan eta berri-tuan ageri dira.

Euskara Batuaren Eskuliburuko batzordeak datu-baseko galde-erantzun guztiak berraztertu, eguneratu eta berridatzi ditu. Halaber, erantzunetan loturak txertatu dira Euskaltzaindiaren arauetara, gramatiketara, *Euskara Batuaren Eskuliburura*, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*... edo zenbait estilo-liburutara (EIMA, EHULKU, *Berria*...) bideratuz irakurlea. Horretaz gainera, galdera askoren izenburuak aldatu eta egokitu dira, eta arloa izenburuan berean txertatu da. Bilaketa errazteko, galdera bakoitza zer zalantza- eta unitate-mota den ere adierazi da. Horri gehitu behar zaio informazio gehigarria, zenbait kasutan ematen dena. Zerbitzu hau aldian-aldian eguneratuko du Akademiak.

"Euskaraz ahoskatzen ikasi eta irakatsi" ikastaroak

2019ko otsailean, Euskaltzaindiaren mendeurreneko ekitaldien artean ahoskerari eskaini zitzaion jardunaldi bat. Hitzaldi eta eztabaidak amaitu ondoren, han azaldutakoak ikasketaren aldetik jorratzen jarraitzeko asmoa azaldu zuen Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeak. Helburu horri atxikiz, Euskaltzaindiak saio teoriko-praktikoak antolatu ditu irakasle, irakaslegai, esatari, eta oro har ahozko hizkuntzan interesa dutenentzat.

Aurtengo maiatz-ekainerako ari zen Euskaltzaindia ikastaro berriak eratzten, baina bertan behera utzi behar izan ziren osasun krisiagatik. Ostera, irailaren 18an antolatu da Donostian; urriaren 16an Bilbon izan da hitzordua eta hilabete berean, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean. Azaroan eta abenduan beste saio bana antolatu da Donostian eta Bilbon.

Ikastaroak Lourdes Oñederra euskaltzain oso eta Ahoskera batzordeburuak gidatu ditu. Ahalegin horretan batzordekideen eta hainbat adituren laguntza izan du.

Euskararen inguruko hausnarketa XXI. mendeko gazteen eskutik

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak eta Euskaltzaindiak unitate didaktiko digitala sortu eta egungo gazteen esku jarri nahi dute. Proposamen honen helburua: euskararen iraganeko, egungo eta etorkizuneko egoeraren inguruko hausnarketa kritikoa bultzatzea euskararen lurralde guztietako gazteekin batera.

Euskararen Herria Ehuntzen unitate didaktikoa euskarri telematikoa eskainiko zaie dohainik Euskal Herriko ikastetxe guztiei.

Honela, ikasleek bizi duten ingurunearen azterketa soziolinguistikoa egingo dute, baina soziolinguistika hitzaren bi osagaien adiera aztertuz, hau da, ikuspegi soziologikoa eta linguistikoa. Finean, beraien egunerokoan euskarak duen presentzia hausnartuko dute.

Horretarako, Euskaltzaindiak galdera batzuk proposatu dizkie gazteei, amu gisa: zein da euskarak zure inguru hurbilean duen presentzia? Zergatik dira euskara edo erdarak zure hizkuntzak? Zein ekarpen egin diezaioket bertako dugun hizkuntza honi? Zein ekarpen egiten dio euskarak eguneroko elkarbizitzari?

XXI. mendeko euskal hiztunak ditu gogoan Euskaltzaindiak erronka hau proposatzerakoan. Jorratzen diren gaiek heldutasuna eta hausnarketa kritikoa eskatzen dutenez, Batxilergoko ikasleei zuzendutakoa da, bai lehenengo mailarako, bai bigarrenako.

Euskaltzaindiak Zuzendaritza berri du datozen lau urteetarako

Euskaltzaindiak bere jarduna datozen lau urteetan gidatuko duen lantaldea aukeratu du urrian Donostian egindako Osoko bilkuran. Bozketa egin ondoren, hauxe erabaki dute euskaltzainek: Andres Urrutiak jarraituko du Akademiaren buru, eta bere ondoan izango ditu Jean-Baptiste Coyos (buruordea), Adolfo Arejita (idazkaria), Roberto González de Viñaspre (diruzaina), Miriam Urkia (Iker sailburua), eta Sagrario Aleman (Jagon sailburua) euskaltzain osoak. Honela, Zuzendaritza berriak euskararen lurralde guztiak hartzen ditu.

Hortaz, Zuzendaritzan lehendik aritu ez diren bi kide berri izango dira (Miriam Urkia eta Roberto González de Viñaspre) eta beste bi kidek utziko dute Akademiaren artezkaritza organoa, hain zuzen, Xarles Videgainek eta Xabier Kintanak.

***Euskera* agerkari akademiko-zientifikoa eraberritu du Euskaltzaindiak**

Akademiaren agerkari akademiko-zientifikoa denak ehun urte bete ditu aurten. Beraz, mende oso batean metatutako edukiak modu eraberrituan aurkeztu dira.

Oso-osorik digitalizatu da; zenbaki guztiak PDF formatuan jaitsi daitezke, baita artikulu solteak ere; artikuluei laburpen-oharrak gehitu zaizkie; bilatzaile bizkorra jarri zaio...

Euskera agerkarian 5.000tik gora item (sarrera) jasotzen dira, eta horietatik 2.000 inguru ikerketa-artikuluak dira. Ikerketa-artikulu horiek indexatuta (homologatuta) daude 2009tik, eta hainbat aurkibide, zerrenda eta datu-basetan agertzen dira.

Euskaltzaindiaren bizitza akademikoaren eta ikerketa-artikuluen arteko bizikidetza dinamikoa da *Euskeraren* ezaugarri nagusia eta, izan duen etenik gabeko eraldaketan, beste pauso bat baino ez da oraingo hau, azken urteetan indexatu edo homologatu egin baita agerkaria, ebaluatzaileak jarri dira, prozedura estandarizatu, zuzenketa linguistikoa egiteko HIZBEA zerbitzua sortu da...

Ehun urteko jarduna

Laburbiltzeko, esan daiteke hiru aro nagusi bizi izan dituela *Euskerak*. Lehena 1919tik 1979ra doana litzateke. 1919an, Pierre Lhande euskaltzaina izan zen *Euskera* abiatzeko eskaria jaso zuena, eta hari zor zaio lehen zenbakian agertzen den euskaltzain guztien zerrenda, erakundearen organigrama, euskaltzain oso bakoitzaren curriculum xehea eta lehen hildakoen (Txomin Agirre eta Pierre Broussain) hilberri-txosten laburrak.

Gerra Zibilak eta frankismoak erabateko etena ekarri zioten *Euskerari*, eta 1953ra arte ez zuen jaso berriz publikatzeko baimena. Hiruzpalau urtetan, hala ere, zailtasun handiak izan zituen argitaratzeko; 1956tik aurrera, ordea, agerkaria normaltasunez argitaratzen hasi zen, gero eta sendoago. *Euskeraren* lehen sendotze hori 1968tik aurrera gertatu zen batez ere (bitxikeria bezala aipatu behar da 1968an egin zen Arantzazuko Biltzarraren aktak ere agerkarian jasota daudela).

Bigarren aroak 1980tik 2008ra bitarteko tartea hartzen du. 1980. urtetik aurrera antzematen da jauzia aldizkariaren kudeaketan, aurrekoa ez bezalako sendotze bat, bai alde materialean, bai akademikoan. Ikerketa-artikulu akademikoei gagozkiela, sendotzea dago (aro horretan, orotara 2.830 artikulu argitaratu ziren).

Hirugarren aroa 2009an abiatu zen. Alde materialetik aldaketa bat egon zen diseinu orokorrean, eta agerkariaren bikoiztasuna sakondu zen, bizitza akademikoa eta ikerketa-artikuluak bereiziz (lehen aroa soilik formatu digitalean argitaratzen da 2016tik aurrera).

Gainera, azken urteetan indexatu (homologatu) egin da *Euskera*, ebaluatzaileak jarri dira, prozedura estandarizatu, zuzenketa linguistikoa egiteko HIZBEA zerbitzua sortu da... Ikerketari dagokionez, agerkaria honako zerrenda eta datu-baseetan aurki daiteke: Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekaren katalogoan; Akademiaren webgunean; Latindex katalogoan; Inguma datu-basean; ISOC datu-basean; Linguistic Bibliography datu-basean; eta Dialnet datu-basean. Horrezaz gainera, kalitate adierazleak ere eskuratu ditu *Euskerak* azken urteotan (CIRC-eko C maila; MIAREN 8.0). Beraz, eduki guztien digitalizazioa etenbako eraberritze horren azken ahalegina baino ez da.

Azaroan

Euskara Batuaren Eskuliburua egoki erabiltzeko saioak

Euskal Idazleen Elkarteak eta Euskaltzaindiak ikastaro bi antolatu dituzte azarorako. *Euskara Batuaren Eskuliburua* (EBE) egoki erabiltzeko eta bilaketak ahalik eta modu eraginkorrean egiteko gako batzuk eskaini dira saio hauetan, Andres Alberdi EBEn batzordeko buruaren eskutik. Azaroaren 18an (Donostian, Euskaltzaindiaren ordezkartzan) eta 25ean (Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan) izan dira saioak.

Euskaltzaindiak Euskaraldian parte hartzeko deia egiten die euskal herritarrei

Euskaraldiaren bigarren ahalegina azaroaren 20tik abenduaren 4ra antolatu da. Jakina denez, euskal hiztunak aktibatzea du helburu Euskaraldiak, beraz, euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala da, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Halaber, beste helburu nagusia euskararen erabilera haztea da, herritarren hizkuntza-ohitu-

retan eraginez. Gainera, aurten norbanako bezala (*ahobizi* edo *belarriprest* izanez) parte hartzeko aukeraz gain, taldean parte hartzeko aukera ere izan da *ariguneen* bidez.

Euskaltzaleen Topaguneak eta euskararen lurralde guztietako erakunde publikoek bultzatzen dute egitasmoa, eta, aurrekoan bezala, Euskaltzaindiak bat egin du Euskaraldiarekin, euskal herritarrei bertan parte hartzeko dei zabala eginez. Egitasmo eraginkor honekin bat egiten du Euskaltzaindiak, eta euskal herritarrak deitu ditu bertan parte har dezaten, modu natural eta atseginean.

Abenduan

Oñatin aurkitutako XVI. mendeko testua aztertuko du Euskaltzaindiak

Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan gordetako notario-protokolo batean jasota dagoen XVI. mendearen hasierako euskarazko testu bat aurkitu du Rosa Aierbe doktoreak.

Ezagutzen den euskarazko lehen testu lirikoa izan daiteke, baina ondo aztertu beharra dago, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskaltzaindiari igorri dio dokumentua, azterketa sakonagoa egiteko proposatuz.

Euskaltzaindiak onartu du eskaria, euskarari dagozkionetan herri-erakundeen aholku-emaiile ofiziala den heinean. Testuak badauka garrantzia, ikuspegi literario-tik baino hizkuntzalaritzaren ikuspegitik, oso urriak baitira XV. eta XVI. hasierako euskarazko testuak.

Orotariko Euskal Hiztegia eguneratu du Euskaltzaindiak

Gaur egun 146.366 sarrera eta 57.016 azpisarrera ditu *Orotariko Euskal Hiztegiak* eta kopuru hori handituz doa egituratze-lanak aurrera egin ahala. Lan horiei esker, hiztegiak azpisarrerak eta hainbat aldaera ere topatzeko gai da orain bilatzailea. Horrez gain, jadanik egituratutako 530.000 adibide inguru daude bilduta eta sailkatuta.

Sarrereren nahiz azpisarrereren bilaketak zuzenean egin daitezke, baita definizioetako hitzak eta adibideetakoak ere.

Orotariko Euskal Hiztegiak euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jaso eta antolatzea du xede. 1987an argitaratu zen paperean lehen liburukia, eta 2005ean hamaseigarrena eta azkena. Hortik aurrera Euskaltzaindia ahalegin handia egiten ari da hiztegi horren bertsio elektronikoa gero eta aberatsagoa izan dadin edukiz eta bilaketa-aukeraz.

Papereko bertsiotik digitalera igarotzeko lehen urratsa hiztegiaren egitura formala automatikoki Text Encoding Initiative (TEI) gidalerroen arabera definitzea izan zen. Egitura formal hori (lemak, aldaerak, sarrerak, azpisarrerak, adibideak, erreferentzia bibliografikoak, kategoria gramatikalak eta abar) oso da konplexua.

Horregatik, sistema automatikoen bidez egitura guztiz esplizitatzea ezinezkoa izan zen, eta, atal batean, sistema erdiautomatikoak, hau da, ordenagailuz lagundutako eskuzko lanketa bidezkoak, beharrezkoak dira. Lexikografiako eta informatikako adituen lankidetzaz eskatzen duten ahalegin horiek aurrera doaz, eta horien ondorio da orain argitara eman den bertsio berria.

Paperezko bertsioa argitaratu zenez geroztik, edukiz ere aberastu da bertsio elektronikoa. 2016tik hona ondoko iturrietako adibideak gehitu dira:

- *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa* (1936-1937).
- Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundien 1917-1923ko euskal testuetako hiztegia.
- Lhanderen hiztegiko Hiribarrenen aipamenak zuzendu dira.
- XVI. eta XVII. mendeetako testu hauek txertatu dira: Fernando Maioraren *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases* liburukoak; Juan Madariagaren *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII* liburukoak; “Erronkari eta Zuberoako agintarien arteko 1616-1617ko gutuneria”; “XVI. mendeko gipuzkerazko Miserere bat” (FLV 1982, 332-334); “1619ko Cancion en lengua Vascongada o Vizcayna” (ASJU 2011 (1), 361-385); “1656ko goi- nafarrerazko bertso batzuk” (ASJU 2006 (XL) 47-80); “Bergara aldeko XVI. mendeko hiztegitxoak” (ASJU 2012 (2), 13-29) eta Urduñako XVII. mendekoa (ASJU 2011 (1), 387-402).
- Salvador Zapirain, «Ataño»ren *Txantxangorri kantaria*.

- Jose M.^a Etxabururen *Ondarroa'ko kontuak*.
- Michel de Chourioaren *Jesu-Christoren Imitacionea* (1720).
- Manuel de Larramendiren *Azkoitiko sermoia* (1737).
- Domingo de Aguirrereren *Ioan etorri bat Erromara* (1899).
- Agustin Anabitarteren *Usauri* (1931).
- Jean Elissalde, «Zerbitzari»ren *Ichtorio Saindua. Testament Zaharra. Jesu-Christo. Eliza* (1943), Metsikorat, LVII.a Gerlan, Artho xuritzetan.
- Federiko Belaustegigoitiaren *Andoni Deunaren bizitza*.